



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko urriaren 9a

81. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Aurrekontu oreka bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretuan jaso bezala, aparteko paga kentzeko agindua betetzeko neurriak hartzen dituena. Osoko zuzenketa (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Adierazpen instituzionala, Adineko Pertsonen Nazioarteko Eguna dela-eta. Eledunen Batzarrak onetsia (5. or.).

—Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak lehendakariari exijitzen dio murrizketen eta neurri ekonomikoen aurkako borondatea defenda dezan autonomia erkidegoetako lehendakarien bileran. Eledunen Batzarrak onetsia (6. or.).

—Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroak elkartasuna adierazten die Andaluzian, Murtzian eta Valentzian izan diren azken uholdeek kaltetutako herritar eta erkidegoei. Eledunen Batzarrak onetsia (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da doako aholkularitza-zerbitzu bat sor dezan etxebizitza-utzarazpen egoeran dauden pertsonentzat. Akats zuzenketa (7. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, jakiteko Auzitegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Salak Nafarroako Gobernuari dei egin dion edota Gobernuak Sala horren aurrean agertzeko asmorik ba ote duen, Hitzarmenaren azken aldatetari buruz UPyD alderdiak aurrezturiko errekurtoa dela eta, Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egina (8. or.).

—Galdera, jakiteko zergatik Nafarroako Gobernuak ez dien ordaindu abenduko aparteko lansariaren zati proportzionala kontratua amaitu zuten administrazio publikoen zerbitzuko behin-behineko langileei, Victor Rubio Martínez jaunak egina (9. or.).

- Galdera, jakiteko zer dela-eta atzeratu den bigarren aldiz Nafarroako Ospitaleguneko larrialdietako eraikin berria ireki eta abian jartzeko data, eta noiz aurreikusten den eraikin hori abian jartzea, Marisa de Simón Caballero andreak egina (9. or.).
- Galdera, jakiteko noiz jakinaraziko diren 2012ko ekainean iragarritako 132 milioiko murrizketak, Roberto Jiménez Alli jaunak egina (10. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako toki sektore publikoko udalei buruzko fiskalizazio-txostena, 2009ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina. (11. or.).
- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketa bidez betetzekoa. Lanpostuak betekizun gisa du euskaraz jakitea. Gaindituen zerrenda (22. or.).
- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketa bidez betetzekoa. Lanpostuak betekizun gisa du euskaraz jakitea. Izendapena (23. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Aurrekontu oreka bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretuan jaso bezala, aparteko paga kentzeko agindua betetzeko neurriak hartzen dituenak.

OSOKO ZUZENKETA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, Aurrekontu oreka bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretuan jaso bezala, aparteko paga kentzeko agindua betetzeko neurriak hartzen dituen Foru Lege proiektuari aurkezturiko osoko zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Proiektu hori 2012ko irailaren 21eko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

OSOKO ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Osoko zuzenketa, honako foru lege proiektuari aurkeztua: Aurrekontu oreka bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretuan jaso bezala, aparteko paga kentzeko agindua betetzeko neurriak hartzen dituen Foru Lege proiektuari.

Zioak: Alderdi popularrak zuzentzen duen Espainiako Gobernuak berriro ere planteatu ditu Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen –eta, oro har, langile guztien– eskubideen eta lan-baldintzen aurkako neurriak.

Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileek eta enpresa-sektore publikoek azken urteotan ikusi dute larriki narriatu direla beren ordainsariak eta, azken finean, beren erosahalmena. Arian-arian, beren oinarrizko ordainsariak ez gaurkotzea eta are jaistea ere ekarri duten neurri-

ak eta legegintza-egintzak onetsi dira. Horrek guztiak eragin du azken bost urteotan ehuneko 12ko galera izan duela, batez beste, langile horien erosahalmenak; galera ehuneko 19tik gorakoa izan da, baldin eta ez badira hartzen 20/2012 Errege Lege Dekretuaren edukia arintzeko neurriak.

Aurrekontuen Egonkortasuna Bermatzeko eta Lehiakortasuna Sustatzeko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretu honen onespenez –ekonomiaren plangintza orokorrerako oinarriak eta koordinazioa izeneko 149.1.13 artikulua eta Estatuko eta autonomia erkidegoetako ogasunen arteko koordinazioa izeneko 156.1 artikulua oinarri– Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenen aurkako eraso berri bat dakar; bereziki, horren 2. artikuluan ezarritakoak, zeren 2012ko abenduko aparteko ordainsaria kentzeak Espainiako Estatu-ko sektore publikoko langile guztiei eraginen baitie.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeztuari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoak eskumen osoa esleitzen dio Nafarroari erkidegoko funtzionario publikoen estatutu-araubideari dagokionez, Estatuko oinarrizko legediak funtzionario publikoei aitortzen ahal dizkien funtsezko eskubideak eta betebeharrak errespetatuz –49.1.b artikulua–.

Nafarroak funtzio publikoaren arloan duen eskumen historikoaren muga bakarra dira batasun konstituzionala eta Foruaren Hobekuntzako manu horretan ezarritakoa, halako moduan non, Konstituzio Auzitegiak irailaren 20ko 140/1990 zenbakiko epaian adierazi duen legez, "funtzionario publikoen estatutu-araubideari buruzko oinarrizko estatulegediaren aurreikuspenek ez dute guztiek izan bere eskumena mugatzeko ondorio hori, «funtsezko eskubide eta betebeharrak» buruzkoek soilik

izanen baitute, hain zuzen ere, ondorio hori" (4. oinarri juridikoa).

Eskumena osoa izateak eragiten du Nafarroak arlo horiei buruzko ahalmen guztiak edukitzea, eta bere foru izaerak eragiten du ahalmen horien muga ez izatea gainontzeko autonomia erkidegoei aplikatu beharrekoaren berdin-berdina; alegia, muga hori ez du ezartzen oinarrizko estatu-legediak, orokorrean hartuta, baizik eta Estatu oinarrizko legediak aitortzen dituen funtsezko eskubide eta betebeharreko errespetuak.

Estatuak konstituzio-eskumena izan lezake langile publikoen ordainsariei mugak ezartzeko –langile publikoak orokorrean hartuta–; halere, maiatzaren 21eko 63/1986 epaiak ezartzen duenez, gehieneko mugen ezarpenak baztertu egiten du autonomia erkidegoen mendeko funtzionario bakoitzaren ordainsarien zenbatekoen gehieneko igoerak ezartzea Estatuak bere kabuz, funtzionario horiek banan-banan hartuta. Ñabardura horrek islatu besterik ez du egiten Estatuaren eta autonomia erkidegoen eskumena bateragarri egin beharra dagoela; izan ere, nahiz eta onartu lehendabizikoaren norainokoa, intentsitatea edo eragina aldatu egin daitekeela, beti mugatu beharko da

berezkoa duen esparrura; hau da, konstituzio-manuek aipatzen dituzten ekonomia-jardueraren plangintzara eta koordinaziora, hortik harantzago joan gabe.

Horiek horrela, parlamentu-talde honen iritziz, erabat onartezinak dira Nafarroako Gobernuaren foru lege proiektu honen oinarria eta edukia; izan ere, jarraikeriaz eta morrontza hutsez, Madrilako Alderdi Popularraren xedapen politikoak onartu, eta planteatzen dena da gaur egun funtzio publikoaren arloan dugun erabakimen mugatuari uko egitea, abiapuntu hartuta langile publikoei soldataren ehuneko 7 kentzea, langile horiei justiziaz dagokien diru bat.

Horrela, eta aipatu ditugun argudioengatik, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak honako osoko zuzenketa aurkeztu du, 2012ko urriaren 11ko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin, zeinaren bitartez eskatzen baita Nafarroako Gobernuari itzul dakion hizpide dugun foru lege proiektua; hau da, Aurrekontu oreka bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretuan jaso bezala, aparteko paga kentzeko agindua betetzeko neurriak hartzen dituen Foru Lege proiektua.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Adierazpen instituzionala, Adineko Pertsonen Nazioarteko Eguna dela-eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2012ko urriaren 1ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“2012. urtea "Zahartze Aktiboaren eta Belaualdien Arteko Elkartasunaren Aldeko Europako Urtea" dela deklaratu du Europar Batasunak, eta horren helburua ez da bakarrik izan Europako herritarrak sentsibilizatzea adineko pertsonen gizarteari egin ahal dioten ekarpenari buruz, baizik eta, halaber, arduradun politikoak eta interesa duten pertsonak bultzatzea zahartze aktiboko aukera hobeak sor ditzaten eta belaualdien arteko elkartasuna indar dezaten.

Gaur egun, adineko pertsonen autonomia izateko borondate arras argia erakusten dute. Horixe erakusten du haien % 87k beren etxean ahal den bora gehien bizi nahi izateak. Baina, aldi berean, familiarekiko harreman trinkoak eduki nahi dituzte. Horren emaitza gisa eta belaualdien artean erakusten duten elkartasun handiaren ondorio gisa, haien % 70ek beren biloben zaintzan lagundu ohi du.

Nafarroako Parlamentuak adierazi nahi du adineko pertsonen gure zahartze aktiboaren aldeko konpromiso irmoa hartzen duela, eta erraztuko duela gizartearen parte-hartze aktiboa izan dezatela. Horretarako, honakoak bilatzen dituen politikak bultzatzen jarraituko dugu: zaharrek protagonismo handiagoa izatea, parte-hartze sozial eta politikorako espazioak garatzea eta haien parte-hartze solidarioa bideratzen duten jarduketak egitea, zaharrak, beren adina dela-eta, dinamika sozialek urrundu gabe.

Denbora gehiagorik eta hobeki bizitzea Ongizatearen Estatuaren lorpen baten gisara jo beharra dago. Erretiroa bizi-zikloaren beste etapa bat dela

jo beharra dago. Etapa bat non erretirodunak beren bilakaera existentzialaren protagonista sentitu eta halakotzat hartuko baitira. Horretarako, beharrezkoa da protagonismo hori aitortua eta sustatua izatea, bai barne mailan, bai kanpoko mailan ere. Alabaina, nahiz eta adineko pertsonen posizio ekonomikoak azken urteetan hobera egin duen, pobrezia-arriskuaren tasa lau puntu handiagoa da haien kasuan espainiarren batez bestekorenean baino. Gaur egun, zaharren % 21,7k arrisku hori du, eta krisialdiarekin, ehuneko hori gorantz doa.

Hala eta guztiz ere, gero eta adineko pertsona gehiago ari da ustekabeko protagonismo bat hartzen gizarteari egiten dioten ekarpen erabakigarriarengatik, aitona-amona zaintzaileen eginkizuna maiz betetzen dutelako ez ezik, beren pentsioak etxebizitza askotako diru-sarrerara nagusi bilakatzen direlako ere, hain zuzen ere beren seme-alabekin edo/eta bilobekin bizi baitira.

Nafarroako Parlamentuak, Adineko Pertsonen Nazioarteko egun honetan, adierazi nahi du apustu egiten duela zahartzearen kontzeptua jardueraren, osasunaren, satisfazioaren eta bizi-kalitatearen sinonimoa izatearen alde.

Hori guztia dela eta, Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du adineko pertsonen buruz kontzeptu zehatz bat garatu, sustatu eta zabaltzeko; hain zuzen ere, herritarren gizartearen parte diren aldetik dagozkien eskubideen arabera kontzeptu bat, bazterkeriarik edo tratu-desberdintasunik gabekoa eta norabide horretan aurrerantz egiteko neurri politikoak bilduko dituena.”

Iruñean, 2012ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko lehendakariari exijitzen dio murrizketen eta neurri ekonomikoen aurkako borondatea defenda dezan autonomia erkidegoetako lehendakarien bileran.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2012ko urriaren 1ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak adierazten du, beste behin, Nafarroako Gobernuko lehendakariari exijitzen diola hurrengo Autonomia Erkidegoetako Lehendakarien Konferentzian, Senatuan urriaren 2an egin beharrekoan, defenda dezan hazkunde ekonomikoaren eta enplegu-sorreraren aldeko apustua eginen duen politika bat, zeina ez

den soilik zentratuta egonen murrizketek dakarten austeritate depresiboko politika batean, Nafarroako gizartearen pobretzea eragin duen horretan.

Parlamentuak adierazpen hau onesten duen une berean helaraziko die Nafarroako Gobernuari eta Espainiako Gobernuko lehendakariari.”

Iruñean, 2012ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroak elkartasuna adierazten die Andaluzian, Murtzian eta Valentzian izan diren azken uholdeek kaltetutako herritar eta erkidegoei.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2012ko urriaren 1ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Bere elkartasuna eta atsekabea helarazi nahi die uholdeetan hil, desagertu eta zauritu diren pertsonen familiei.

2. Babesa erakusten die kaltetutako herrietako bizilagun eta entitateei.

3. Andaluzia, Murtzia eta Valentziako Erkidegoako agintariei Nafarroako herriaren laguntasuna adierazten die, bai eta uholdeen ondorio larriak gainditu ahalko dituzten konfiantza ere.

4. Dei egiten die Nafarroako gizarte osoari eta bertako erakundeei, kaltetutakoei laguntza eskain diezaieten.”

Iruñean, 2012ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da doako aholkularitza-zerbitzu bat sor dezan etxebizitza-utzarazpen egoeran dauden pertsonentzat.

AKATS ZUZENKETA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

Eloy Villanueva Cruz jaunak idazki bat aurkeztu du, eta eskatzen du akats bat zuzentzea ondoko mozioan: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da doako aholkularitza-zerbitzu bat sor dezan etxebizitza-utzarazpen egoeran dauden pertsonentzat". Mozioa 2012ko irailaren 28ko 77. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Aipatu idazkia ikusita, hona ERABAKIA:

1. Ondoko akats zuzenketa argitaratzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean. Erabaki proposamenak hauxe esaten du: "1. Akordio bat lor dezan Iruñeko Udalarekin eta Abokatuen Elkargoarekin, Nafarroa osora hedatzeko utzarazpenen aurkako aholku-zerbitzua"; eta honela esan behar du: "1. Nafarroa osora hedatzea Iruñean dagoeneko jarrita dagoen utzarazpenen aurkako aholku-zerbitzua; zerbitzu hori Iruñeko Udalaren eta Abokatuen Elkargoaren arteko akordio baten ondorioz ematen da".

Iruñean, 2012ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko Auzitegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Salak Nafarroako Gobernuari dei egin dion edota Gobernuak Sala horren aurrean agertzeko asmorik ba ote duen, Hitzarmenaren azken aldaketari buruz UPyD alderdiak aurrezturiko errekurtsioa dela eta.*PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko Auzitegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Salak Nafarroako Gobernuari dei egin dion edota Gobernuak Sala horren aurrean agertzeko asmorik ba ote duen, Hitzarmenaren azken aldaketari buruz UPyD alderdiak aurrezturiko errekurtsioa dela eta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko urriaren 8an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaleta, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentariak, hurrengo galdera hau egiten du premiazko zat hartu eta datoren 2012ko urriaren 11ko Osoko Bilkuran erantzuna izan dakion Nafarroako Gobernuko Lehendakari andrearen aldetik.

Hitzarmenaren azken aldaketaren aurka UPyD alderdiak ipinitako auzia dela eta, deitua izan al da Nafarroako Gobernua, demandatu moduan, Auzitegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Epaitegira? Hala, ba al dauka Nafarroako Gobernu horrek auzi horretan aurkezteko asmorik, Legebiltzarrak erabakitako ildoan?

Iruñean, 2012ko urriaren 8an

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

Galdera, jakiteko zergatik Nafarroako Gobernuak ez dien ordaindu abenduko aparteko lansariaren zati proportzionala kontratua amaitu zuten administrazio publikoen zerbitzuko behin-behineko langileei.

VÍCTOR RUBIO MARTÍNEZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Víctor Rubio Martínez jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko zergatik Nafarroako Gobernuak ez dien ordaindu abenduko aparteko lansariaren zati proportzionala kontratua amaitu zuten administrazio publikoen zerbitzuko behin-behineko langileei.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko urriaren 8an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Víctor Rubio Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak heldu den urriaren 11ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

– Nafarroako Gobernuak ez die ordaindu abenduko aparteko lansariaren zati proportzionala irailean kontratua amaitu zuten administrazio publikoen zerbitzuko behin-behineko langileei. Zergatik?

Iruñean, 2012ko urriaren 8an

Foru parlamentaria: Víctor Rubio Martínez

Galdera, jakiteko zer dela-eta atzeratu den bigarren aldiz Nafarroako Ospitaleguneko larrialdietako eraikin berria ireki eta abian jartzeko data, eta noiz aurreikusten den eraikin hori abian jartzea.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa de Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko zer dela-eta atzeratu den bigarren aldiz Nafarroako Ospitaleguneko larrialdietako eraikin berria ireki eta abian jartzeko data, eta noiz aurreikusten den eraikin hori abian jartzea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko urriaren 8an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko Marisa de Simón Caballero, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuak heldu den urriaren 11ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer dela-eta atzeratu da bigarren aldiz Nafarroako Ospitaleguneko larrialdietako eraikin berria ireki eta abian jartzeko data? Noiz aurreikusi du Nafarroako Gobernuak eraikin hori abian jartzea?

Iruñean, 2012ko urriaren 8an.

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, jakiteko noiz jakinaraziko diren 2012ko ekainean iragarritako 132 milioiko murrizketak.

ROBERTO JIMÉNEZ ALLI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Roberto Jiménez Alli jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko noiz jakinaraziko diren 2012ko ekainean iragarritako 132 milioiko murrizketak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko urriaren 8an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Roberto Jiménez Alli jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina andreak heldu den urriaren 11ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Noiz jakinaraziko dituzue 2012ko ekainean Legebiltzar honetan iragarritako 132 milioiko murrizketak?

Iruñean, 2012ko urriaren 8an

Foru parlamentaria: Roberto Jiménez Alli

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako toki sektore publikoko udalei buruzko fiskalizazio-txostena, 2009ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko abenduaren 27an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Nafarroako toki sektore publikoko udalei buruz egindako fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2011ko abenduaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Nafarroako toki sektore publikoko udalei buruzko fiskalizazio-txostena, 2009ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (11. or.).
- II. Helburuak, norainokoa eta mugak (11. or.).
- III. Toki sektore publikoaren antolaketa-egitura eta araudia (12. or.).
 - III.1 Antolaketa-egitura (12. or.).
 - III.2 Araudia (15. or.).
- IV. Toki entitateen fiskalizazio-jardueren laburpen-txostena (16. or.).
- V. Toki sektore publikoaren finantza-egoera (18. or.).
- VI. Aholkuak (20. or.).
 1. apendizea. Nafarroako toki sektore publikoaren egoerari eta Nafarroako udal bakoitzaren finantza-egoerari buruzko txostena, 2009. urtea.

Oharra: Aipaturiko apendizea foru parlamentarien eskura dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta ondoko web helbidean hain zuzen:

www.cfnavarra.es/camara.comptos

I. SARRERA

Nafarroako toki sektore publikoari buruzko txostena egin da Comptos Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin bat, eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea betez. Izan ere, lege horretako 350.2 artikulua ezartzen duenez, Comptos Ganberak urtero igorriko die txosten-laburpen bat Nafarroako Parlamentuari eta Nafarroako Gobernuari, Nafarroako toki entitateen arloan Comptos Ganberak egindako fiskalizazio- eta kontrol-jardueri buruzkoa.

Lan hori 2011ko azaroan egin zuen kontu-ikuskaritzako teknikari batek eta kontu-ikuskatzaile batek, Comptos Ganberaren zerbitzu juridikoekin, informatikoekin eta administratiboekin lankidetzan.

Txostena ezin izan da lehenago egin, Toki Ogasunei buruzko Foru Legeak toki entitateek ekitaldi bakoitzeko kontu orokorra onesteko eta Gobernuari igortzeko ezarritako epeak eta informazio horren tratamenduaren konplexutasuna direla-eta.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako toki entitateetako, Toki Administrazioako Departamentuko eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federaziorako langileei, lan hau egiteko emandako laguntza-erengatik.

II. HELBURUAK, NORAINOKOA ETA MUGAK

Lanaren helburuak hauexek dira:

a) Nafarroako toki entitateen esparruan Ganbera honek egindako fiskalizazio- eta kontrol-jardueren 2009ko ekitaldiko txosten-laburpena aurkeztea.

b) Nafarroako toki entitateen 2009ko finantza-egoeraren eta antolamenduaren ikuspegi bat ematea Parlamentuari, administrazio publikoei eta Nafarroako gizarteari.

c) Toki entitateen kudeaketa hobetzeko aholkuak proposatzea Nafarroako Parlamentuari, Gobernuari eta toki entitateei.

Nafarroako toki entitateen 2009ko ekitaldiko Kontu Orokorra da lanaren norainokoa. Ondokoek osatzen dute kontua:

– Udalaren kontuak nahiz haren erakunde autonomoenak.

– Merkataritza-elkarteenak, horien kapitala oso-osorik toki entitateena bada.

– Kontzejuena eta mankomunitateena.

– Eranskinak.

Toki Administrazioiko Departamentuak gaiari buruz egindako eta Ganbera honi igorritako txostenen oinarritzen dira toki sektore publikoaren finantza-egoerari buruzko ondorioak.

Lanaren norainokoari dagokionez, muga bat izan zen ondoko toki entitateei buruzko informazio ekonomiko-finantzariorik eta aurrekontuei dagokionik ez edukitzea, ez baitzioten 2009ko Kontu Orokorra igorri Nafarroako Gobernuari:

– Udalak: Xabier (113 biztanle), Petilla Aragoi (25 biztanle), Esa (254 biztanle) eta Larraga (2.121 biztanle).

Udalerrri horiek udalerrri guztien ehuneko 1,48 besterik ez dute osatzen, eta bertako biztanleriak Nafarroako udalen ehuneko 0,4.

– Kontzejuak: Amillao, Etsain, Olague, Aroztegi, Artozki, Gazolatz, Baternain, Elortz, Gerendiain, Iharnotz, Zulueta, Antxoritz, Inbuluzketa, Arre, Azotz, Makirriain, Orikain, Sorauen, Goñi, Labeaga, Goldaratz, Latasa, Muskitz, Ardatz, Aristregi, Gartziriain, Otsakar, Artariain, Olaz, Etxague, Mendibil, Oloritz, Soltxaga, Asiain, Ibero, Izu, Anotz, Iltzarbe, Senosiain, Biotzari, Domeñu, Muru Artederreta, Arandigoien, Iruñela eta Murugarren.

45 kontzeju horiek guztira 4.275 biztanle hartzen dituzte, erakunde horien biztanleriaren ehuneko 11,6 eta dauden kontzeju guztien ehuneko 12,8.

– Udal-batasunak: Aezkoa Ibarreko Batzar Nagusia eta Aralarko Batasuna.

– Mankomunitateak: Zangoza Eskualdeko Zerbitzuen Mankomunitatea, Auñamendi Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, Mendialdea Kirol Mankomunitatea, Euskararen kudeaketarako Nafarroa Iparraldeko Mankomunitatea eta Andia Zerbitzu Administrazioen Mankomunitatea.

Kontuak aurkeztu ez zituzten udal-batasun eta mankomunitate horiek Nafarroan dauden ehuneko 9,2 osatzen dute.

III. TOKI SEKTORE PUBLIKOAREN ANTOLAKETA-EGITURA ETA ARAUDIA

III.1 ANTOLAKETA-EGITURA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean ezarritakoarekin bat antolatzen da toki sektore publikoa.

Udalak dira lurralde-antolamenduaren oinarritzeko toki entitateak. Toki entitatearen mailakoa dira, halaber:

- Kontzejuak.

- Errege Bardeako Komunitatea, Aezkoako Elkarteak, Erronkari Ibarreko Mankomunitatea, Zaraitzuko Unibertsitatea eta herri-ondasunen titularrak diren edo administratzen dituzten izaera tradizionalako korporazioak.

- Mankomunitateak.

- Udal-batasunak.

- Administrazio-barrutiak.

Hona toki entitateen eta haien menpeko erakundearen kopurua 2009an eta aurreko urteetan:

Toki entitateak	2005	2006	2007	2008	2009
Udalak (1)	272	272	272	272	272
Kontzejuak	355	353	353	352	350
Mankomunitateak	64	66	67	66 (2)	65 (2)
Udal-batasunak	10	12	14	18	17
Guztira	701	703	706	708	704


(1) 60 udal konposatuak dira

(2) 6 mankomunitatek ez dute jarduerarik

Menpeko erakundeak eta partzuergoak	2005	2006	2007	2008	2009
Erakunde autonomoak	79	73	72	73	67
Enpresa publikoak	25	29	29	38	41
Partzuergoak	10	10	11	16	16
Guztira	114	112	112	127	124

• Aurreko guztiaz gainera, Ganbera honen 2011ko uztailleko txostenak dioen moduan, 2009ko ekitaldian toki entitateenak ziren 9 fundazio publiko zeuden.

Hona, grafikoki, Nafarroako toki sektore publikoaren egitura 2009ko abenduaren 31n:



Nafarroako 272 udalerrien biztanle-kopurua, errolda ofizialeko datuen arabera, 630.578koa zen 2009ko urtarrilaren 1ean. Hona haien banaketa:

Biztanle-tartea	Udalerrien kopurua	% udalerrriak guztizkoari buruz (%)	Biztanleria	% biztanleria guztizkoari buruz (%)
<100	36	% 13,24	2.269	% 0,36
100-199	56	% 20,59	8.100	% 1,28
200-499	60	% 22,06	19.312	% 3,06
500-999	35	% 12,87	25.932	% 4,11
1.000-1.999	26	% 9,56	36.029	% 5,71
2.000-2.999	21	% 7,72	53.018	% 8,41
3.000-4.999	17	% 6,25	63.392	% 10,05
5.000-9.999	11	% 4,04	77.707	% 12,32
10.000-24.999	8	% 2,94	111.611	% 17,70
25.000-50.000	1	% 0,37	34.717	% 5,51
50.000 baino gehiago	1	% 0,37	198.491	% 31,48
Guztira	272	% 100,00	630.578	% 100,00

Ikus daitekeenez, Nafarroako udalerrien ehuneko 68,75ek (187 udalerrri) 1.000 biztanle baino gutxiago dituzte. Aipatzekoa da, halaber, Nafarroako biztanleriaren ehuneko 31,48 Iruñari dagokiola eta talde horren ehuneko 50 hiri horren bailaran bizi dela.

Ganbera honek bere txostenetan behin eta berriro adierazi bezala, biztanle-kopuru txikiak dituztenez giza baliabide eta finantza-baliabide mugatuak dituzte eta ez dute administrazio-egitura egokia eta nahikoa beren eskumenak kudeatzeko, eta horrek zaildu egiten du zerbitzuak merke, eraginkortasunez eta kalitatez ematea.

Herritarren gaur egungo eskaerak eta kudeaketa publiko arrazionala bateratu beharko lituzkeen Nafarroako Toki Administrazioaren eredia eguneratzeko premiaren arazoak horretan dirau, nahiz eta jarduera hauek egin diren:

Nafarroako Parlamentuak erabaki bat onetsi zuen 2007ko azaroaren 23an, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua eskatu baitzitzaion proposamen bat aurkez zezan toki entitateen finantzaketari eta udal-mapa modernizatu beharrari buruz.

Gai horri dagokionez, Nafarroako Gobernuak Foru Komunitateko Toki Administrazioaren berrantolaketa administratibo eta funtzionalari buruzko azterketa bat aurkeztu zuen 2008an. Azterlan

horretan nabarmen utzi zien toki administrazioaren gaur egungo sistemak ez zuela zerbitzuak modu eraginkorrean emateko aukera ematen eta ez ziela herritar guztiei zerbitzu berberak kalitate berberaz jasotzea bermatzen.

2009an, Nafarroako Parlamentuko Toki Administrazioiko Batzordeak azterlan horren gaineko lan-talde bat sortzea erabaki zuen, Toki Administrazioaren berrantolaketa administratiboaren eta funtzionalaren oinarriak, helburuak eta proposamenak ezarriko zituen. Lan-taldea 2009ko martxoaren 17an eratu zen.

2011ko otsailean, aipatutako batzordeak Nafarroako Toki Administrazioaren berrantolaketa administratiboari eta funtzionalari buruzko lan-taldearen txostena onetsi zuen. Txostenean, Nafarroako Gobernuari eskatzen zitzaion Foru Lege proiektu bat egitea, eta bertan Nafarroako toki entitateen egitura antolatzeko mapa bat eranstea.

Horren ondorioz, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko VII. titulua aldatzen duen martxoaren 17ko 4/2011 Foru Legea onetsi zen, eta hartan ezartzen zen Nafarroako Gobernuak Foru Lege proiektu bat igorriko ziola Parlamentuari 2012ko irailaren 30a baino lehen, Nafarroako toki entitateen antolamendua eta tokiko mapa arautzeko.

III.2 ARAUDIA

Ondoko lege- eta erregelamendu-xedapenak dira, funtsean, Nafarroako toki entitateek 2009an bete behar dituztenak:

- Toki administrazioaren eta -arabidearen arloan eta ekonomia-, aurrekontu- nahiz kontabilitate-arabidearenean aplikatzekoak dira:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailearen 2ko 6/1990 Foru Legea.

- Toki Arabideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.

- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea.

- 270/1998 Foru Dekretua, 271/1998 Foru Dekretua, 272/1998 Foru Dekretua eta 273/1998 Foru Dekretua, irailaren 21ekoak denak, aurrekontuei eta gastu publikoari, aurrekontuen egiturari, Nafarroako Toki Administrazioarentzat Kontularitza Orokorreko Instrukzioari eta Kontularitza Bakunari dagokiena, hurrenez hurren.

- Kontularitza Publikoaren Plan Orokorra, toki administrazioari egokitua, Ekonomia eta Ogasun Ministerioak 1990eko uztailearen 17ko aginduz onetsia. (272/1998 FD 425 Araua, Kontularitzako Instrukzio orokorra)

- 2009ko aurrekontua betetzeko oinarriak

- Zergak eta prezio publikoak arautzen dituzten ordenantzak eta akordioak.

- Kontratazio administratiboaren alorrean, ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea, kontratu publikoari buruzkoa, otsailaren 14ko 1/2007 Foru Legean zehaztutako berezitasunekin.

- Langileen arloan, Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duena, bai eta haiek garatzeko xedapenak ere.

- Hirigintzaren arloan, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legea.

- Diru-laguntzen arloan, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta uztailearen 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsitako erregelamendua.

Horrez gainera, toki sektore publikoari aplikatu beharreko ondoko legeak onetsi ziren 2009an zehar:

- Ekainaren 5eko 6/2009 Foru Legea, hirigintzaren eta etxebizitzaren alorreko presazko neurriei buruzkoa.

- Abenduaren 9ko 15/2009 Foru Legea, enpresa-jarduerak edo jarduera profesionalak abian jartzeko administrazio sinplifikatzeko neurriei buruzkoa.

- Azaroaren 23ko 17/2009 Legea, zerbitzu-jardueretarako sarbide libreari eta horietan aritzeari buruzkoa, eta hura aldatzen duen abenduaren 22ko 25/2009 Legea.

- Otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioen opor, lizentzia eta baimenen erregelamendua onesten duena.

- Irailaren 28ko 68/2009 Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoetan langileak araubide administratiboaren arabera kontratazioa arautzen duena.

- Otsailaren 19ko 1/2009 Foru Legea, azaroaren 9ko 13/2009 Foru Legea eta martxoaren 30eko 25/2009 Foru Dekretua, kontratu publikoen 6/2006 Foru Legea aldatzen dutenak.

- Urriaren 26ko 13/2009 Errege Dekretu Legea, Enplegurako eta Tokiko Iraunkortasunerako estatuko funtsa sortu zuena.

- Urtarrilaren 19ko 5/2009 Foru Dekretua, apirilaren 27ko 39/2009 Foru Dekretuak aldatua, zeinaren arabera aldatzen den 2009-2012 aldirako Toki Inbertsioen Planaren urriaren 24ko 16/2008 Foru Legea garatzeko Erregelamendua.

- 2009ko urriaren 5eko Nafarroako Gobernuaren akordioa, zeinaren arabera onartzen den Toki Inbertsioen Plana 2009-2012 eperako.

IV. TOKI ENTITATEEN FISKALIZAZIO-JARDUEREN LABURPEN-TXOSTENA

Nafarroako Comptos Ganberak ondoko 14 udalerrien 2009ko Kontu Orokorraren finantzen eta legezketasunaren arauzkotasunari buruzko fiskalizazioa egin zuen:

Udalerria	Txostenaren data	Biztanleria errolda 09-1-1	Gastuak	Diru-sarrerak	Menpeko entitateak		
					EEAA	Enpresa	Fundaz.
Antsoain	10/02/2011	10.500	11.150.338	10.052.533	1		
Barañain.	28/02/2011	22.110	19.230.518	18.995.857	2	1	1
Beriain-Morelucea Sozietatea	20/12/2010	3.651	5.764.710	6.275.890		1	
Berriozar	21/03/2011	9.020	13.425.762	9.683.723			
Burlata	27/01/2011	18.595	19.525.783	17.967.469	2	3	
Lizarra	09/03/2011	14.238	18.494.519	19.416.335	1	1	
Funes	28/06/2011	2.379	4.532.849	3.151.930			
Iruña	24/01/2011	198.491	284.305.433	295.286.190	2	5	2
Tafalla	16/11/2010	11.394	22.867.133	23.649.562	3	1	
Tutera	16/12/2010	34.717	52.218.782	53.963.203	2		
Urdazubi	19/07/2011	368	3.923.321	4.084.442		1	
Eguesibar	24/02/2011	10.787	8.832.491	8.614.879		3	
Atarrabia	18/02/2011	10.642	13.063.857	12.300.826			
Zizur Nagusia	08/03/2011	13.345	13.872.215	13.585.465	3		
Fiskalizatutako udalerriak, guztira		360.237	491.207.711	497.028.304	16	16	3

Fiskalizatutako 14 udalerrien artean 360.237 biztanle dituzte; alegia, Nafarroak 2009ko urtarrilaren 1ean zituen 630.578 biztanleen ehuneko 57. Horien diru-sarrerak Nafarroako toki sektore publiko guztiaren diru-sarreraren ehuneko 44,67 hartzen dute, eta gastuek ehuneko 45,91.

14 udalerrri horien artean 16 erakunde autonomo, 16 enpresa publiko eta hiru fundazio dituzte.

Fiskalizazioen helburua honako gai hauei buruzko iritzia ematea izan zen:

A) Toki Entitatearen 2009ko ekitaldiko Kontu Orokorrak, alderdi nagusiei zegokionez, 2009ko abenduaren 31ko ondareari, ekonomia- eta finantza-egoerari, aurrekontuaren likidazioari eta ekonomia-emaizari buruzko irudi zehatza ematen zuen, aplikatzekoak zaizkien kontabilitate-arauen eta -printzipioekin bat.

b) 2009ko ekitaldian legezketasuna bete ote zen.

c) Entitatearen egoera finantzarioa 2009ko abenduaren 31n.

Fiskalizazioaren emaitzak dagokion txostenean jaso ziren, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Comptos Ganberaren webgunean argitaratu.

Fiskalizatutako 14 entitateen artetik, Berriozar-ko Udalean aldeko iritzia eman zen, 11 udalerritan iritzia aldekoa izan zen baina Kontu Orokorrari buruzko salbuespenen batekin, Funesko Udalean udalei buruzko iritzia aldekoa izan zen eta negatiboa legezketasunari dagokionez, eta Urdazubiko Udalaren kasuan, iritzia negatiboa izan zen.

Hona salbuespen nagusiak:

- Eguneratu gabeko inbentarioa (9 entitate).
- Ez daude kuantifikatuta funtzionarioen pensio-ereduetatik ondorioztatutako betebeharrak aktuarialak (berariazko aurreikuspen-sistemak dituzten 3 entitateak).
- Kontabilitateko egoera-orrietan jaso gabeko diru-sarrerak eta gastuak (3 entitate).
- Finantza-egoerak eragindako ziurgabetasuna (entitate bat).

Hona Ganbera honek 2009ko fiskalizazio-txostenetan emandako aholku nagusiak:

Aurrekontu Orokorra eta Kontu Orokorra

- Aurrekontu Orokorra kasuan kasuko ekitaldia hasi baino lehen onestea (12 entitate).

- Inbertsio-proiektuak martxan jartzearen eta urteko mantentze-lanen ondoriozko gastu arruntek etorkizuneko aurrekontuetan izango duten eragina balioestea, eta gaur egungo zerbitzuen eta etorkizuneko onoriozko finantza-zama aztertzea horien bideragarritasunaren arabera (8 entitate).

- Kreditu-aldaketak izapidetzeko aukera eman go duen prozedura abenduaren 31 baino lehen ezartzea (4 entitate).

- Kontu Orokorra hurrengo ekitaldiaren irailak 1 baino lehen onartzea (4 entitate).

- Kontu Orokorren espedientean sartzea araudian aipatzen diren egoera guztiak (4 entitate).

- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 230. artikulua ezartzen dituen neurriak aplikatzea, Diruzaintza Gerakin negatiboko aurrekontua kitatzeko (4 entitate).

- Diru-sarreraren aurrekontu-kopuruen estimazioa horien benetako aukeren arabera egitea, gaur egungo egoera ekonomikoa kontuan hartuta (3 entitate).

- Ekitaldiko aurrekontuari egozte ekitaldian egiazki sorrarazitako gastuak (3 entitate).

- Oroitidazkiaren edukia osatzea, Kontu Orokorra egoki interpretatu eta ulertzeko behar adina informazio emateko (3 entitate).

Ibilgetua eta inbentarioa

- Ondasun eta eskubideen udal-inbentarioa eguneratzea eta onestea. Kontabilizatutako ibilgetuarekin konektatzeko bidea emanen duten prozedurak diseinatzea eta aplikatzea (9 entitate).

- Udal-ondasunen eskuratu- eta erregistratze-prozesua burutzea (5 entitate).

Langileak

- Plantilla udalaren langileria-premiarekin bat datorren ala ez aztertzea (6 entitate).

- Plantilla organikoa hurrengo ekitaldiaren aurretik onartzea (3 entitate).

Kontratazio administratiboa

- Kontratazio prozedura egokia aplikatzea, kontratuaren izaeraren eta zenbatekoaren arabera (9 entitate).

- Kontratazio administratiboa arautzen duen araudira egokitzea, arauan ezartzen diren baldintza eta dokumentu guztiak beteta (6 entitate).

- Kontratazioan konkurrentzia bermatzea (3 entitate).

Emandako diru-laguntzak

- Diru-laguntzak emateko prozedura arautzen duen ordenantza orokorra onestea (5 entitate).

Hirigintza

- Lurzoruaren Udal Ondarea eratzea eta kudeatzea udalaren gainerako ondasunetatik bereizirik, eta Udalaren Lurzoru Ondarearen Erregistroa sortzea (9 entitate).

- Planeamendua Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen arabera egokitzea (7 entitate).

- Planeamendua Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen arabera egokitzea (3 entitate).

Diru-sarrerak

- Tasa eta prezio publikoen tarifak onartzea eta argitaratzea aplikatutako ekitaldiaren aurretik (4 entitate).

Sozietate-erakunde autonomoak

- Udalak bere erakunde autonomoen eta/edo merkataritza-sozietateen ekintzen gainean egin behar duen kontrola eta babesa modu egokian bermatuko duten prozedurak diseinatzea (3 entitate).

Aurreko txostenez gainera, toki entitateei buruzko hiru txosten osagarri egin ziren 2009. urteari dagokionez, nola diren:

- San Adrián Udalaren kirolguneari buruzko txostena, aipatutako entitatearen osoko bilkurak eskatuta egina. Honako hauek izan ziren ateratako ondorio nagusiak:

- Ez da betetzen kirolgunearen osagaiei aplikatzen diren kontratazio-araudia.

- Kirolgunearen amaierako kostua hasierako aurreikuspenak baino bi heren handiagoa izan zen, behin betiko instalazioetan egindako aldaketak direla-eta.

- Instalazioekin bete beharreko premien, kokaletuaren, diseinuaren eta finantzaketaren plangintza eskasa.

– Nafarroako Errege Bardeen Komunitateari buruzko txostena, Parlamentuaren eskaera bati erantzuteko egina.

Aldeko iritzia eman zen, inbertsioen aurrekontu-gastuen eta balantzeko ibilgetuaren arteko loturarik eza salbu.

– Toki fundazioei buruzko txostena, Espainiako Kontuen Auzitegiarekiko lankidetzaren esparruaren babespean egina; txostenaren arabera, tokiko 9 fundazio publiko zeuden.

V. TOKI SEKTORE PUBLIKOAREN FINANTZA-EGOERA

Toki sektore publikoaren 2009. urteko finantza-egoeraren azterketa Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiaren txostenean oinarrituta dago.

Txostenean toki entitateen eta haien erakunde autonomoen informazio bateratua ematen da, hala 2009koa nola aurreko ekitaldietakoa. Hona toki entitateen eta haien erakunde autonomoen 2008ko eta 2009ko gastu eta diru-sarrera bateratuak, kapitulu ekonomikoen arabera emanak.

Diru-sarrerak

		Milioika eurotan			
Kapitulua		Diru-sarrerak (2009)	Diru-sarrera guztien gainera ehunekoa	Diru-sarrerak (2008)	Diru-sarreraren aldaketa 2009/08
1	Zuzeneko zergak	164,25	% 14,9	157,28	% 4
2	Zeharkako zergak	32,39	% 2,9	44,14	-% 27
3	Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	139,20	% 12,7	133,75	% 4
4	Transferentzia arruntak	289,82	% 26,3	280,29	% 3
5	Ondare bidezko diru-sarrerak	42,45	% 3,9	47,46	-% 11
	Diru-sarrera arruntak	668,11	% 60,7	662,92	% 0,8
6	Inbertsioen besterentzea	67,61	% 6,2	85,12	-% 20,6
7	Kapital-transferentziak	269,59	% 24,5	232,97	% 15,7
	Kapital-sarrerak	337,20	% 30,7	318,09	% 6
8	Finantza-aktiboen aldaketa	17,06	% 1,6	14,13	% 20,7
9	Finantza-pasiboen aldaketa	77,12	% 7	80,73	-% 4,5
	Finantza-eragiketarako diru-sarrerak	94,18	% 8,6	94,86	-% 0,7
	Diru-sarrerak, guztira	1099,49		1075,87	% 2,19

2009ko ekitaldian, toki sektore publiko osoaren diru-sarrerak 1.099,49 eurokoak izan ziren; horietatik, ehuneko 50,8 transferentzia arruntetatik eta kapital-transferentzietatik heldu zen, ehuneko 17,8 zergetatik, ehuneko 12,7 tasa, prezio publiko eta bestelako diru-sarreretatik, ehuneko 8 finantza-eragiketetatik, eta gainontzekoa, ehuneko 4, ondare bidezko diru-sarreretatik.

Zuzeneko zergen eta tasen aldaketa 2008. urtekoari buruz positiboa izan da. Horren aurrez aurre daude zeharkako zergak (EIOZ), ehuneko 27 jaitsi baitira aurreko urteari buruz.

Gainera, aipatzekoa da nabarmen murriztu direla inbertsioen besterentzeak 2008. urteari

dagokionez (ehuneko 20,6), eta baita ondarearen bidezko diru-sarrerak ere (ehuneko 11).

Toki sektoreak transferentzien mendekotasun handia duela ikusten da, diru-sarreraren ehuneko 51 osatzen baitute. Aipatzekoa da, 2009an, 107 miliei euroko kapital-transferentzien bidezko aparteko diru-sarrerak aitortu zirela, E Planetik deribatuta. Baliabideen aparteko ekarpen hori kontuan hartuko ez bagenu, transferentzien aldaketa, 2008. urteari buruz, negatiboa izango litzateke ehuneko 7,7.

Aipatutako kopuru horiek nork sartzen dituen aztertuz gero, ehuneko 87,49 udalei dagokiela ikusten da, ehuneko 10,33 mankomunitateei eta gelditzen den 2,17 kontzejuei.

Gastuak

		Milioika eurotan			
Kapitulua		Gastuak (2009)	Gastu guztien gaineko ehunekoa	Gastuak (2008)	Diru- sarreraren aldaketa 2009/08
1	Langileria-gastuak	259,95	% 24	250,66	% 4
2	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	257,76	% 24	255,27	% 1
3	Gastu finantzarioak	11,66	% 1	12,77	-% 9
4	Transferentzia arruntak	71,32	% 7	65,90	% 8
	Gastu arruntak	600,69	% 56	584,60	% 3
6	Inbertsio errealak	428,29	% 40	414,54	% 3
7	Kapital-transferentziak	15,32	% 1	20,19	-% 24
	Kapital-gastuak	443,61	% 41	434,73	% 2
8	Finantza-aktiboen aldaketa	13,55	% 1	10,81	% 25
9	Finantza-pasiboen aldaketa	24,76	% 2	22,36	% 11
	Finantza-eragiketen gastuak	38,31	% 3	33,17	% 15
	Gastuak, guztira	1.082,61		1.052,50	% 2,9

Toki sektore publikoaren gastuak 2009an ehuneko 2,9 igo ziren 2008. urtekoen aldean, eta 1.082,61 milioi eurora iritsi ziren. Horietatik, ehuneko 40 inbertsioak izan ziren, ehuneko 24 ondasun arruntak eta zerbitzuak erosteko baliatu ziren, ehuneko 24 langileen gastuetarako, ehuneko zortzi onartutako transferentzietarako eta gainerakoak finantza-eragiketen ondoriozko gastuetarako.

Langile-gastuak ehuneko lau handitu ziren 2008. urtekoen aldean; aldiz, ondasun arruntak eta zerbitzuak erosteko gastuak antzeko mailatan gelditu ziren.

Aipatzekoa da kapital-transferentziak ehuneko 24 murriztu zirela aurreko urtekoei buruz, eta finantza-aktiboen aldaketa ehuneko 25 handitu zela.

Azaldutako konparazioan, nabarmendu behar da inbertsioetarako gastua ehuneko hiru baino ez dela igo aurreko urtekoari buruz. E Planaren inbertsioak 2009. urtean egin behar zirenez, egin izan ez balira inbertsioak ehuneko 22,5 gutxituko liratekeen aurreko urteari buruz.

Gastuen ehuneko 88 udalei dagokiela ikusten da, ehuneko 10,1 mankomunitateei eta gelditzen den 1,9 kontzejuei; ehuneko horiek diru-sarreraren kasuan lortutakoen antzekoak dira.

Gastu horien sailkapen funtzionalari erreparatuz gero, ehuneko 29 etxebizitza eta hirigintzaren sailari dagokio, ehuneko 15 kulturari eta kirolari, ehuneko 11 komunitatearen ongizateari eta ehuneko hori bera gizarte-segurtasunari eta -babesari, ehuneko bederatzita entitatearen administrazio orokorrari, ehuneko zortzi hezkuntzari eta gainerako beste kontzeptu batzuei, nola diren segurtasuna eta babes zibila, finantza-zama eta administrazioa edo gizarte-sustapena.

Laburbilduz, 2009. urtean toki sektore publikoak aurrekontu-kitapen positiboa erakusten du, 71,38 milioi euroko aurrekontu-superabit doituarekin, nahiz eta aurrekontuaren emaitza ez finantzarioak 38,99 milioi euroko defizita duen.

Ondoren, toki entitateen egoera finantzarioaren hainbat adierazleren bilakaera erakusten da, 2006tik 2009ra:

Adierazleak	2006	2007	2008	2009
Aurrezki gordina	119,59	103,06	90,09	79,08
Finantza-zama	33,78	31,79	35,41	36,42
Aurrezki garbia	85,71	71,27	54,68	42,66
Zorpetze-maila	% 5,49	% 5,03	% 5,34	% 5,45
Zorpetze-muga	% 19,37	% 16,30	% 13,59	% 11,84
Zorpetze-ahalmena	% 13,88	% 11,27	% 8,25	% 6,39
Zorra, guztira	237,88	280,56	338,85	380,48
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	122,19	58,8	76,98	100,67

Toki sektore publikoak funtzionamendu-gastuei eta finantza-zamari erantzuteko adina baliabide arrunt sortu zituen 2009an. Era horretara, aurrezki garbia, baliabide arrunten soberakina funtzionamendu gastuak finantzatu ondoren (langileak, ondasun arruntak eta zerbitzu eta transferentzia arruntak), eta zorraren finantza-zama (interesak eta amortizazioa) 42,66 milioi eurora iritsi ziren. Aurrezki gordina zein garbia positiboak badira ere, bi adierazle horiek aztertutako epean progresiboki behera egin dutela ikusten da.

Zorpetze-maila diru-sarrerara arrunten ehuneko 5,45koa izan zen, aurreko urteetako ehunekoa-aren antzekoa, eta zorpetzeko ahalmena diru-sarrerara horien ehuneko 6,39koa izan zen, aurreko urteetako ehuneko bano txikiagoa.

Zorra 380,48 milioi eurora iritsi zen, diru-sarrerara arrunten ehuneko 56,9, hau da, ehuneko 60 igo zen 2006. urtekoaren aldean. Zorraren ehuneko 89 udalei eta haien erakunde autonomoei dagokie, ehuneko 7 mankomunitateei eta udal-batasunei, eta gainerakoa kontzejuei. Batez besteko interes-tipoa ehuneko 2,94koa izan zen, eta ordaintzeko dagoen mugaeguna, batez beste, 15,77 urtekoa.

Gastu arruntetarako diruzaintza-gerakina 100,67 milioi eurokoa izan zen; horrek adierazten du hurrengo ekitaldian gastuak finantzatzeko likidezia sortu zuela, ehuneko 30,77 handituz aurreko urtekoaren aldean. Aurreko urteetan egin behar izan ez zen zorra hitzartzearen ondorioz gertatu da igoera hori.

Azken batean, 2009an Nafarroako toki sektore publikoaren finantza-egoera ona bazen ere, ekonomia-krisiaren ondorioz –bereziki hirigintzaren alorreko jarduerari eragin zion eta eragiten dion– toki entitateen diru-sarrerek behera egin dute. Horrez gainera, Nafarroako Gobernuaren Hiru Urteko Planetan ezarritako inbertsioen gaineko finantzaketa-ereduaren ezaugarrien ondorioz, toki

entitateek zorpetzera jo behar izan zuten egiteko zeuden inbertsioak finantzatzeko, eta horrez gainera, jadanik egindako azpiegiturak mantentzeko gastu arrunt handiagoak egin behar izan ziren.

VI. AHOLKUAK

Aurreko guztia kontuan hartuta, Foru Komunitateko Administrazioari eta Parlamentuari honako aholkuak ematen dizkiogu:

- *Nafarroako Toki Administrazioa arrazionalizatzeko eta berregituratzeko beharrezkoak diren neurri legegileak eta administratiboak lehentasunez eta premiaz aplikatzea, toki entitateek beren zerbitzuak eraginkortasunez, merke eta kalitatez eman ditzaten eta helburu horretarako giza baliabideak eta baliabide finantzarioak izan ditzaten.*

Neurri horiek Nafarroako gizarte osoan eta haren botere publikoetan dute eragina; hori dela eta, adostasuna lortzen saiatu behar da, betiere herritarren borondatea eta zilegi diren interesak errespetatuz, eta lidergo politiko-instituzionala gauzatuz neurrian inplementatzean.

- *Toki entitateen eta horien merkataritza-sozietate publikoen kontularitza-egoerak sendotzeko legezko neurri egokiak hartzea, toki sektore publiko osoak egindako jardueraren erabateko ikuspegi emateko helburuarekin.*

- *Dagokion arauzko xedapena onartzea, Foru Komunitateko toki entitateei abenduaren 12ko Egonkortasunerako Lege Orokorra aplikatzeko helburuarekin.*

- *Toki kontularitza berritzea eta Kontularitza Publikorako Plan Orokorrera egokitzea, administrazio publiko guztien artean kontularitzaren alorreko normalkuntza lortzea komeni baita.*

- *Eguneratzea Toki Entitateen Erregistroa, toki entitateen mendeko sozietate publikoei eta haien fundazioei buruzko informazioarekin.*

Toki entitateentzako aholkuak:

- *Udalaren barne-kontrola erakunde autonomoen eta merkataritza-sozietateen kudeaketa ekonomikora zabaltzea: esku hartzeko funtzioa, finantza kontrolatzeko funtzioa eta eraginkortasuna kontrolatzeko funtzioa.*

- *Udal-ondasun eta -eskubide guztien inbentario balioztatua eta eguneratua egitea, eta ibilgetuaren kontuekin lotzea. Helburu horretarako, egokia litzateke inbentariorako programa informatiko bat diseinatzea, kontularitzarekin lotua, eta inbentarioren kudeaketari buruzko prozedura orokorrak eta irizpide uniformeak definitzea.*

- *Lurzoruaren udal-ondarearen erregistroa sortzea eta bertan sarrerak eta irteerak modu justifikatuan sartzea, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legean ezarritako helburuetarako.*

- *Udalaren lurzoru-ondarea eta Udalaren gainerako ondasunak bereizirik kudeatzea, eta udal-ondasunen inbentario orokorrean adieraztea eta zehaztea lurzoruaren ondareari dagozkienak eta beren izaera, hirigintzaren alorreko legeetan ezarritako helburuei lotuta.*

- *Toki entitateen autoantolamendurako ahalmenaren barruan, toki entitate horiek dituzten zerbitzu publikoen egitura aztertzea, horien kudeaketa arrazionalagoa izan dadin, eta eraginkortasun eta ekonomia printzipioetara egokitu daitezten.*

- *Gastu arruntak egingo diren inbertsioetan zer eragin izango duten aztertzea, inbertsio produktiboenak hautatuz.*

- *Bideragarritasun-plan bat diseinatzea, inbertsioen errentagarritasuna eta bereziki inbertsio garrantzitsuenena aztertzeko.*

- *Gaur egun Toki Administrazioan zerbitzu publikoen kostuen metodologia hobetzea eta erabakiak hartzeko kudeaketa-adierazle baliagarriak definitzea.*

Txosten hau Karen Moreno Orduña kontu-ikuskatzaileak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, indarrean den araudiak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2011ko abenduaren 22an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketa bidez betetzekoa. Lanpostuak betekizun gisa du euskaraz jakitea.

Gaindituen zerrenda

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 1ean egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

Bukatu da Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko lanpostu huts bat –lanpostuak betekizun gisa du euskaraz jakitea– lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko deialdia. Deialdia 2012ko martxoaren 12ko Mahaiko erabakiaren bidez onetsi zen (2012ko apirilaren 11ko 34. NPAO eta 2012ko apirilaren 16ko 71. NAO). Ezagu-

tuta epaimahai kalifikatzaileak igorritako gaindituen zerrenda eta deialdiko 8.1 oinarrian aurreikusitakoarekin bat, hona ERABAKIA:

1. Gainditu dutenen ondoko zerrenda jasotzat ematea.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2012ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Izangaiaren izena	Merezimenduak, guztira	Proba, guztira	Puntuazioa, guztira
Aldatz Payan, Gorka	30,19	12,01	44,20
Goikoetxea Irigoyen, Gentzane	27,12	11,53	38,65

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketa bidez betetzekoa. Lanpostuak betekizun gisa du euskaraz jakitea.

Izendapena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 1ean egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

Bukatu da Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko lanpostu huts bat –lanpostuak betekizun gisa du euskaraz jakitea– lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko deialdia. Deialdia 2012ko martxoaren 12ko Mahaiko erabakiaren bidez onetsi zen (2012ko apirilaren 11ko 34. NPAO eta 2012ko apirilaren 16ko 71. NAO).

Ezagututa epaimahai kalifikatzaileak igorritako gaindituen zerrenda eta deialdiko 8.2 oinarrian aurreikusitakoarekin bat,

ERABAKI DU:

1. Nafarroako Parlamentuko funtzionario izendatzea, Administrazioen Kidegoko administrari gisa, euskaraz jakiteko betekizunarekin, ondotik adierazten den izangaia:

Aldatz Payan, Gorka.

2. Ezartzea interesdunak hamar egun naturaleko epea izanen duela, izendapena jakinarazten zaionetik aitzina, bere karguaren jabetza hartzeko.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2012ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

